

1

Ekologiatik hizkuntza-iraunkortasunera: marko teorikotik proposamen praktikoetara¹

Albert Bastardas

Bartzelonako Unibertsitatea

albertbastardas@ub.edu

Sarrera-data: 2011-07-20 | Onartze-data: 2011-10-15

Laburpena. Artikulua Albert Bastardas irakasleak UEMAK Soziolinguistika Klusterrarekin antolatutako *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* Topaketan emaniko hitzaldian oinarritzen da. Bertan, hizkuntza-ekologiaren gai zentralak aurkezten zituen irakasleak, hizkuntza-ekologiatik hizkuntza-iraunkortasunera doan bidean topatzen diren zailtasunak eta indarguneak bereiziz. Zerk huts egiten duen eta nola alderatu daitezkeen hizkuntzen egoeraren kudeaketa eta biodibertsitatearena azaltzen du artikuluan. • **Hitz-gakoak:** *biodibertsitatea, hizkuntza-ekologia, iraunkortasuna, ekosistema.*

Abstract. From Ecology to Language Sustainability: from theoretical frameworks to practical proposals. Professor Albert Bastardas bases this paper on the lecture he gave at the Seminar *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* (*Language Ecology and Basque Territories*) organised by UEMA (Association of Basque-speaking Town Councils) and the Sociolinguistics Cluster. In it the professor presented the main aspects of language ecology, and explained the difficulties and strong points that one may encounter on the road between language ecology and language sustainability. In his paper he explains what fails and how the language management situation can be compared with the biodiversity management situation. • **Key words:** *biodiversity, language ecology, sustainability, ecosystem.*

SARRERA

Oso pozik nago Euskal Herrira etortzeaz eta euskararen berreskuratze-prozesua nola ari den gauzatzen ikusteaz; izan ere, zinez da prozesu garrantzitsua eta miresgarria. Ez zarete jabetzen zeinen garrantzitsua den herrialde honetan euskara, antzinako hizkuntza dena, berreskuratzeke eta gure garaira ekartzeko egiten ari zireten lana. Ezohiko prozesua da, eta, batzuetan, prozesu horretan buru-belarri sartuta daudenak ez dira konturatzen zeinen garrantzitsua den gertatzen ari dena. Aspaldian ez naiz etorri Euskal Herrira, baina sinetsiez adazue: ezohiko prozesua da. Egindako aurrerabideari begiratuta —argi dago, hainbat arrazoi tarteko, nahi genukeen baino gutxiago egin dela aurrera—, zorionak eman behar dizkiot talde honi eta, batez ere, hizkuntzaren alde lan egiteko bildutako udalerriei (UEMA). Etortzen naizen bakoitzean txunditu egiten nau zer-nolako gaitasuna duen herrialde honek, edo, herritarrek, hobeto esanda, antolatzeke eta, irudimenaren bidez, ekiteke modu berriak asmatzeke eta behin betiko konponbideak aurkitzeke. Nik ideia batzuk baino ez ditut; dena den, konturatu naiz zuen teorizazio-maila handia dela eta ekintza ugari dituzuela abian.

HIZKUNTZA-EKOLOGIATIK HIZKUNTZA-IRAUNKORTASUNERA

Pentsatzen aritu naiz gai honi lotutako zer ideia erabil ditzakezuen eguneroko lanean. *Hizkuntza-ekologiatik hizkuntza-iraunkortasunera* azalduko dut; izan ere, marko teorikotik marko propositibora eta praktikora igarotzeke bidea da, nolabait. Teoriatik praktikarako urratsa da ekologiatik iraunkortasunerako jauzia. Dirudienez, Haugen hizkuntzalari norvegiar eta iparramerikarrak erabili zuen lehenbiziko aldiz hizkuntza-ekologiaren kontzeptua 1972an. Dena den, hizkuntza-iraunkortasun ofizialaren kontzeptua 1992an sortu zen Rioko goi-bileran. Han sortu zen, hain zuzen, garapen iraunkorraren kontzeptua, iraunkortasunaren filosofiaren oinarri dena. Hasieran, ekologiar buruzko teorizazioak biodibertsitatea eta espezieen habitata hartu zituen ikergaitzat, eta gero, giza espeziea.

Zer baldintza behar ditu giza espezieak bizitzeko? Orain arteko hazkunde neurrigabeak aurrera jarraitzen badu eta natura-ekosistemak suntsitzen jarraitzen badugu, landare- eta animalia-espezieak ez ezik, giza espeziea ere desagertu egingo da. Hitzaldi honetan, jakintzat ematen da hori gertatuko dela. Horrek iraunkortasunaren filosofiara garamatza. Filosofia horren helburua da natura-ekosistemen babesa eta gizakion

Gizarteak ingurumenarekiko ekologikoa terminoa onartu du, eta horrek aukera ematen digu hizkuntza-ekologia terminoa mahaigaineratzeko.

ongizatea eta zorientasun soziala nahiz ekonomikoa uztertzea. Nola jarraitu, baina, ekonomiaren eta gizartearen aldetik aurrera egiten, gizakiok ezinbestekotzat ditugun natura-ekosistemak suntsitu gabe? Horra hor erronka. Nire ustez, hori da iraunkortasunaren filosofiaren funtsa. Soziolinguisten ikuspuntutik begiratuta, kontua da jakitea nola aplikatu ekologiaren eta iraunkortasunaren arloko ideiak hizkuntzen arlora.

Heinar Haugenek teoria 1972an sortu zuen arren, geroago garatu zen, noiz eta dibertsitatearen aldeko mugimendu ekologistek indarra hartu zutenean. Soziolinguistek aukera berriak ikusi zituzten. Ekologoak eta bioekologoak biodibertsitatearen teoria garatzen, hobeto ulertzen eta defendatzen ari zirela ikusita, soziolinguistak konturatu ziren teoria hori erabil zezaketela hizkuntzen dibertsitatea ulertzeko eta mantentzeko. Mundu osoko hainbat hizkuntzalarik analogia hori landu zuten, eta, horrela, hizkuntza-ekologiaren teoria garatu zuten.

Horrez gainera, analogia hori balioei aplikatu zieten. Gure helburua garrantzitsua da, eta euskal komunitatearentzat ere lehentasuna du. Gizarteak *ingurumenarekiko ekologikoa* terminoa onartu du, eta horrek aukera ematen digu *hizkuntza-ekologia* terminoa mahaigaineratzeko; izan ere, gaur egun, positiboa da ekologiaren etiketa; are gehiago, gizartean praktikotzat jotzen da.

Hortaz, *hizkuntza-ekologia* kontzeptua mahaigaineratzeko aukera dugu. Kontraesana da: biodibertsitatearen alde bargaude, nola liteke gizadia hizkuntza-dibertsitatea defendatzeko prest ez egotea?

ZERK HUTS EGITEN DU?

Okerra da gizakiok geure buruaz dugun errepresentazioa: landare-eta animalia-espezieak babesteko politikak onesten ditugu, baina guk geuk sortutako espezie soziokulturalen eta hizkuntza-sistemen galerak ez digu kezka handirik eragiten.

Balioetsi egin behar da giza diasporak planeta osoan mendeetan zehar sortu duen aberastasuna. Demagun giza espeziea Afrikan sortu zela, eta munduan zehar hedatu eta dibertsifikatu zela. Nola liteke horren balioa ez balioestea? Nola onar dezakegu akritikoki eta ezer egin gabe giza hizkuntzen habitatak suntsitzea? Nire ustez, zeregin ideologiko garrantzitsu bat egin behar dugu: talde nagusiei elkartasuna eskatu behar diegu; izan ere, haien laguntzarik gabe, talde ertainek eta txikiek ezingo dute bizi.

Zer irakasten digu biodibertsitatearen salbazioak? Gure jardunaren xedea habitatak izan behar direla irakasten digu. Izan ere, gauzak ez

dira beren kasa existitzen (hori ez da ekologia, baizik eta sena, gauza konplexuen sena); aitzitik, testuinguruan betetzen dituzten helburuen arabera existitzen dira. Testuinguruan eginkizun jakin batzuk betetzen dituztelako existitzen dira hizkuntzak; bestela, zergatik existituko dira? Hizkuntza bat ez da bere kabuz existitzen; aitzitik, hizkuntza hori darabilten hiztunentzat eta gizartearentzat erabilgarria delako existitzen da. Beraz, hizkuntza bat salbatzeko, ez da hizkuntza bera salbatu behar, baizik eta haren habitata; hau da, haren garapen-eremua, existentziaren testuingurua. Hori dela eta, gutxieneko ekosistema egokiak eraiki behar ditugu, hizkuntza gordetzeko eta garatzeko. Hauxe da erronka: ekosistema soziopolitikoak eta kulturalak eraikitzea gizakiok hizkuntza-kodea erabiltzen jarrai dezagun. Hortaz, hizkuntzak berak baino garrantzi handiago du testuinguruak, hots, hizkuntzaren habitatak.

ZER EGITEN DUGU BIODIBERTSITATEAREN ARLOAN?

Ikertu egiten dugu Lurrean zer espezie dauden mehatxatuta edo galzorian. Noren errua da espezieak desagertzea? Espezieena? Ez! Espezieek ez dute desagertu nahi! Haien habitat naturala suntsitzen denean desagertzen dira espezieak. Hizkuntzekin hori bera gertatzen da.

Gainera, guretzat hizkuntzen arazoa beste hizkuntzak dira: Zein da beste hizkuntzekiko loturaren oinarrizko kontzeptua? Hizkuntza bat ez da galtzen hiztunek bat-batean hitz egiteari uzten diotelako edo mututu egiten direlako, baizik eta hiztunek beste hizkuntza bat hitz egitea erabakitzen dutelako, hau da, hizkuntza ordeztan dutelako. Hizkuntza bat hiltzen denean, giza komunikazioa ez da bertan behera gelditzen; hizkuntza-kodea ordeztan da.

Beraz, hizkuntza-ekologiari buruz teorizatzen dugunean, kontuan hartu behar dugu lehiaren kontzeptua; izan ere, hizkuntzen arteko lotura —erromantikoak izan nahi badugu ere— tirabiratsua eta gatazkatsua izan daiteke. Hizkuntza batek beste hizkuntza baten eginkizuna bereganatzen duelako gertatzen da hori. Hori dela eta, arazo bat sortuko da; pertsonok arrazoizkotasunez, senidetasunez eta elkertasunez konpondu beharko dugun arazo bat, hain zuzen. Eta hori teorizatu egin dezakegu; izan ere, hizkuntzen galeraren eragileetako bat hizkuntza handien jarduna da; hau da, gizadia menderatu duten hizkuntza-talde handien jarduna. Beste hizkuntza batzuk jan dituztelako dira hizkuntzak handiak; hau da, jatorrizko eremutik atera eta beste hizkuntzei zegozkien eremuak eta eginkizunak bereganatu dituzte. Horregatik, espezieen arteko lehia, eta, beraz, hizkuntzen arteko lehia, hartu behar dugu abia-

**Hizkuntza bat
salbatzeko, ez da
hizkuntza bera
salbatu behar,
baizik eta haren
habitata; hau da,
haren
garapen-eremua,
existentziaren
testuingurua.**

puntutzat. Esate baterako, hizkuntza-taldeek, landare-espezieek bezala, bizitzeko espazioa behar dute; bestela, espezie batzuek beste espezie batzuk jaten dituzte.

Bi espezie lehia daudenean, zenbat elementuk hartzen dute parte? Gaingiroki aztertuz gero, bi elementuk parte hartzen dutela esango dugu. Baina oker gaude; izan ere, hizkuntzez gainera, beste elementu garrantzitsu bat dago: testuingurua. Hizkuntzak beti daude testuinguru jakin batean; testuinguruak espezie jakin baten alde egingo du. Hortaz, espezieen arteko lehia aztertzen dugunean, espezieak beren testuinguruan azertu behar ditugu.

Esate baterako, azter dezagun hizkuntza-berdintasunaren gaia Katalunian eta Euskal Herrian, legelarien ikuspuntutik. Hasteko, hizkuntza-komunitate horien hizkuntza-berdintasunak aztertzean, kontuan izan behar dugu hizkuntza-komunitate horietako batek besteak baino hiztun gutxiago dituela. Bi hizkuntzak ez daude egoera berdinean. Hori dela eta, egoera hori konpentsatuko duen testuingurua sortu behar dugu. *Ezberdinak diren gauzak berdintzat hartzea diskriminazioa da, diskriminatzailea da.* Hortaz, testuinguruaren ikuspegia izateko, ezinbestekoa da berdintasun-politikek ekitate-politikak sortzea, berez ezberdina dena berdintzeko, betiere, kontzeptu orokorra kontuan hartuta.

Garrantzitsua da galzorian dauden hizkuntzen mapa kontuan izatea; izan ere, hizkuntzak desagertzearen arriskua mundu-mailako arazoa da: hizkuntza-ekologiaren gaia mundu osoan kontuan hartu beharreko gaia da, eta hori, nolabait, ona da guretzat; izan ere, baieztatu egiten digu ez garela arazo hori dugun bakarrak: espezie guztiak jakin behar dute nola kudeatu beren espeziearen hizkuntza- eta kultura-dibertsitatea. Horregatik, mundu osoko arazoa denez, gure ekarpena mundu osoarentzat izango da onuragarria.

ZEIN DA EKOLOGIAREN ARRAZOIBIDEA?

Ekologiak espezieak eta haien habitata lotzen ditu. Hainbat tresna kontzeptual eta eredu sortu ditu ekosistemak aztertzeko. Ekosistema bat hainbat elementuren bat-egitea da; bat-egite horren helburua da funtzionalki integratutako sistema bat mantentzea. Hau da, ekosistemak bereizi egiten ditu elementu nagusiak eta gainerako elementuak. Ideia hori hizkuntzen eremura ekartzen badugu, helburua da hizkuntza-ekosistemaren elementu nagusiak zein diren identifikatzea; hau da, hizkuntza batek ezin baditu hizkuntza handi baten elementu guztiak izan, zer elementu dira funtsezkoak hizkuntza hori gordetzeko eta garatzeko?

Hau da aztertu behar duguna: zer lotura egon behar du banakako elementuen eta elementu guztien artean, hizkuntzek bizirik jarraitzeko? Zein dira funtsezko, oinarrizko eta bigarren mailako elementuak? Azken finean, hori egiten dute hizkuntza-politikek. Baina, tamalez, gerta daiteke politikak oker egotea; hau da, garrantzizkotzat hartu ez diren elementuek garrantzi handiagoa izatea garrantzizkotzat hartu diren elementuek baino. Horregatik, egokiak izan daitezten, etengabe aztertu behar dira hizkuntza-politikak.

Egoera soziolinguistiko guztiak ezberdinak dira. Euskararen egoera ez da katalanaren edo gaelikoaren egoera. Erantzuna egoerara egokitu behar da. Hortaz, nahiz eta hizkuntza-ekologia orokorra izan, egoera jakin batean aplikatzen denean, egoera jakin horren ekologia bilakatu behar da, hots, berariazkoa eta zehatza, eta hori hizkuntza horretako hiztunek soilik egin dezakete.

Iraunkortasunaren kontzeptua eta praktika 1992an sortu zen; *Brundtland txostena* izan zen abiapuntua, hain zuzen ere. Funtsean, txosten horrek esaten du ezin diogula hazkunde mugagabea oinarritutako egungo ekonomia-ereduari eutsi; izan ere, eredu horrek izaki bizidunak desagerraraziko ditu. Gizarte hedakorrak eta menderatzaileak ikuspegi unibertsaletik aztertu behar dira. Hori garrantzitsua da; izan ere, mendeko taldeek, maiz, beren baitan ixteko joera dute; uste dute biktima bilakarazten dituen egoera ez dela beste inon gertatzen, eta ez dute kontuan hartzen espeziearen dimentsio hori. Giza espeziearen talde txiki bat gara gu. Ikuspegi unibertsala garrantzitsua da teorizazioa egiteko; izan ere, helburua ez da hizkuntza-komunitate jakin batentzako teoria sortzea, baizik eta teoria unibertsal bat sortzea. Iraunkortasunaren filosofiak ere ezaugarri hori du: munduaren zati txiki bat gara, baina duintasun osoa dugu.

Horrenbestez, iraunkortasunaren filosofiak ingurumenaren etika eta morala aldarrikatzen ditu. Filosofia horren arabera, gizakiok etikoki eta arduraz jokatu behar dugu ingurumenarekin. Helburua da ekonomiaren nahiz gizartearen aurrerabidea eta ingurumenarekiko errespetua uztartzea. Ekonomia-eredu eta gizarte hedakorrei aurka egin behar diegu. Ideia hori hizkuntzen iraunkortasunari aplikatzeak hizkuntza hedakorrei, hizkuntza menderatzaileei eta hizkuntzaren eginkizunak neurriz kanpo erabili nahi dituzten hizkuntzei aurka egitea dakar. Ikuspuntu hori hartzen badugu, iraunkortasuna unibertsal bilakatzen da; ikuspegi unibertsal hori gure egin nahi dugu, hain zuzen ere. Gureak bezalako hizkuntza-komunitateek ez diote komunikazio unibertsalari uko egiten; aitzitik, gainerako taldeekin ulertzeko gai den giza espeziaren parte izan nahi

**Ezberdinak diren
gauzak
berdintzat
hartzea
diskriminazioa
da,
diskriminatzailea
da.**

**Hizkuntza batek
ezin baditu
hizkuntza handi
baten elementu
guztiak izan, zer
elementu dira
funtsezkoak
hizkuntza hori
gordetzeko eta
garatzeko?**

dugu. Guk ez dugu isolatzerik nahi, ez dugu elebakar izan nahi. Aldeantzez, eleaniztunak izan nahi dugu; kultura-aniztasunaren erronka onartzen dugu. Erronka hori onartzen dugu, bai, baina, lehenik eta behin, norberaren hizkuntza babesteko erantzukizuna dugu. Funtsezkoa da hori. Norberaren hizkuntzari buruz pentsatzeak ez du esan nahi komunikazio unibertsalari uko egiten diogunik, ez eta alderantziz ere.

Paradigma horrek XXI. mendeko gizakiaren modernotasunera garamatza. Pentsa dezakegu horrek zalantzan jartzen duela gizakiok di-kotomien bidez pentsatzeko dugun joera; hau da, gauza baten alde bageaude beste gauza baten aurka egon behar dugula pentsatzeko dugun joera. Gauza bat “edo” beste bat izan behar dugula pentsatu beharrean, gauza bat “eta” beste hainbat gauza izan gaitezkeela pentsatzen badugu, tarte bat irekitzen diogu epistemologiari, bai eta sormenari ere, eta horrek aukera ematen digu “eta” hori nola antolatu aztertzeko; izan ere, gizakiok gauza asko gara aldi berean; hau da, hainbat identitate, hizkuntza eta eginkizun izan ditzakegu.

Ingurumenaren auziak hizkuntzen hierarkia desagerrarazi behar du. Hizkuntza bertan behera uzteko arrazoietakoa bat beste hizkuntza hobia dela pentsatzea da, eta norberarena kaskarragoa. Nolabait esatearren, hiztun horiek hizkuntza-duintasuna galdu dute. Dena den, argi izan behar dugu agian beste hizkuntza batzuk behar ditugula beste hizkuntza-talde batzuetako gizakiekin hitz egiteko. Baliteke gizakiok gure espeziari dagokion lingua franca bat izatea. Badirudi ingelesa ari dela eginkizun hori betetzen, gero eta gehiago gainera. Hala eta guztiz ere, ez ditugu gauzak nahasi eta oker balioetsi behar. Hizkuntza batzuk orokorrak dira, eta interkomunikazio-eginkizunak dituzte; horrek, ordea, ez du esan nahi gorenak direnik. Interkomunikazio-eginkizunak betetzen dituzte eta kito. Hizkuntza orokorrak gorenak direla pentsatzea da arazoa. Globala izateak ez du esan nahi goren izatea; oso garrantzitsua da hizkuntza-taldek hori kontuan hartzea.

Hizkuntza-iraunkortasunak hizkuntza guztien duintasuna balioesten eta defendatzen du; horrez gainera, arrazoibide eta printzipio bidegarriak sortzen saiatzen da. Esate baterako, ingurumen-iraunkortasunaren arloko alderdiak hizkuntzari aplikatzen badizkiogu, besteak beste, printzipio hau ezarriko dugu: erdara behar-beharrezko kasuetan soilik erabili behar da, hizkuntza-komunitatearen hizkuntzen eginkizunei ahalik eta kalte gutxien eragin diezaien. Bestela esanda, nahiz eta eleaniztasuna onartu eta beste hizkuntza batzuk jakin, hizkuntzen artean loturak eratzen ditugunean, lehentasuna eman behar diogu gure hizkuntza erabiltzeari: oinarri-oinarrizkoa da.

Demagun giza talde guztiak harremanetan egongo direla; nolakoa izan beharko du harreman horrek iraunkorra izateko? Hizkuntza-harreman iraunkorrak baldintza hau bete behar du: erdararen eraginak eta erabilerak mugatua izan behar du; hau da, ez dio norberaren hizkuntzen jarraitutasun egonkorrari kalterik egin behar. Nahiz eta beste hizkuntza batzuk jakitea eta hizkuntzen arteko harremana aberasgarria izan, horrek ez du arriskuan jarri behar norberaren hizkuntzaren iraunkortasuna eta garapena.

Zer egin dezake pertsona batek hizkuntza-iraunkortasunaren aldetik ekologikoagoa izateko? Esate baterako, babes handiena behar duen hizkuntza erabil dezake beti. Ekologikoa izateko, harremanetan eta argitalpenetan, norberaren hizkuntzari eman behar zaio lehentasuna. Zer egin dezakete erakundeek eta udalek? Ekologiaren ikuspuntua oinarri hartuta, lagundu beharreko komunitatearen hizkuntza erabili beharko dute lehentasunez.

Hizkuntza-iraunkortasunaren helburua da tirabirak sortzen dituzten paradigmak bateratzea eta behar bezala antolatzea. Horrek esan nahi du ekitateak izan behar duela garapen sozialaren eta ekonomikoaren oinarria (gogora dezagun ekitateak ez duela esan nahi berdintasuna, baizik eta desorekatuta dagoena orekatzea). Horretarako, hizkuntza-politikaren gaietan, espazio batzuk legezkatu egin behar dira, espazio horietan euskara eta katalana lehentasunez erabil daitezten. Hemen, zuen mankomunitatean, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak euskara gordetzeko beharrezkoa den habitata sor dezake.

Horrenbestez, kontua da ekonomia bizigaia eta bideragarria sortzea, eta hizkuntzari dagokionez, pertsonak erraztasunez jardutea. Bestela esanda, ezin dugu hizkuntza-komunitate zoriotsu bat eraiki, baldin eta etengabe ahalegina egin behar bada komunitatearen hizkuntza hitz egiteko. Hezkuntza-politikek, gizarte-politikek eta beste-lako politikek bermatu egin behar dute hizkuntza egunerokoan naturaltasunez eta zorientasunez erabili ahal izatea; hori da, hain zuzen, lortu behar duguna.

Alderdi askoko pentsamoldea izan behar dugu, sarri tentsioan egoten diren gauzak antolatzeko. Demagun hizkuntzak espezieztat hartzen ditugula eta alderdi horiek —esate baterako, alderdi ekonomikoa— kontuan hartzen ditugula; nola antolatuko dugu hizkuntzen arteko harremana? Hemen, gizarte-erantzukizun korporatiboaren aldetik ari zarete alderdi hori lantzen, gizarte-erantzukizun korporatiboa euskararen, katalanaren eta beste hizkuntza batzuen aldeko apustua egiten duen enpresa-etika eratzailea den aldetik. Hori garrantzitsua

**Norberaren
hizkuntzari
buruz
pentsatzeak ez du
esan nahi
komunikazio
unibertsalari uko
egiten diogunik,
ez eta alderantziz
ere.**

da. Arrazoibide horrek eragina izan dezake erakundeetan: gure arloan ingurumen-inpaktuaren ikerketak egitea mahaigaineratu daiteke; hau da, inpaktu soziolinguistikoa ikerketak egitea. Ezinbestekoa da hori lortzea; izan ere, erakundeek eta instituzioek eragin handia dute arlo horretan.

NOLA EGITEN DUTE PUBLIZITATEA?

I Nola erlazionatzen dira erosle eta bezero izan daitezkeenekin? Nola antolatzen dute lan-jarduna? Hori guztia garrantzitsua da hizkuntza modu naturalean mantentzeko. Hortaz, enpresak konturatu egin behar dira haien eginkizuna ez dela onura ekonomikoa bermatzea soilik; aitzitik, konturatu egin behar dira gizartearen parte direla, eta, horrenbestez, gizartearen alde egin behar dutela lan, eta etika ekolinguistikoa arabera jardun behar dutela.

Amaitzeko, kontura gaitzen hizkuntza-ekosistemak batez ere pertsonak direla: ez dira hizkuntzak soilik, baizik eta hiztunak. Ez dezagun ahaztu giza konplexutasuna: hizkuntzek ez dute ezaugarri gizatiarrik; pertsonok ditugu ezaugarri gizatiarrak.

Nolako izan behar du ekologia soziokognitiboak? Ekologia soziokognitiboaren bidez, pertsonen ikuspuntutik azter ditzakegu hizkuntzen ekosistemak. Ekologia soziokognitiboak bi ikuspegi hartzen ditu kontuan: alde batetik, ikuspegi soziolinguistikoa tradizionala, soziologiaren oinarritzako teoriak oinarritzat hartzen dituena; eta, bestetik, ikuspegi kognitiboa. Hori garrantzitsua da; izan ere, urte askotan zehar, soziologiak XIX. mendeko arrazoibidea hartu du oinarritzat. Beste zientzia batzuek bezala, esate baterako, psikologiak bezala, soziologiaren helburua zen zientziazat aintzatetsia izatea. Horregatik, fisikaren parametroak imitatzen saiatu ziren soziologoak. Lehenengo soziologoek fisika soziala egin nahi zutela esaten zuten. Hori dela eta, garrantzi handia eman zioten enpirismoari eta gizakion alderdi mentala baztertu zuten. Hori, ordea, akats larria da. Gizarteak ulertzeko, eta, beraz, ikuspegi soziolinguistikoa ulertzeko, ezinbestekoa da ikuspegi mentala, kognitiboa eta kognitibo-erotiboa kontuan hartzea. Kognizioa eta emozioak funtsezkoak dira. Nire ikasleei beti hitz egiten diet Norbert Elias soziologoari buruz. Hark gizaki baten garuna erakusten zien bere ikasleei, kontuan har zezaten soziologia eta ustezko aldaketak ulertzeko ezinbestekoa dela gizakion jokabidean garunak duen garrantziaz jabetzea. Oso jarrera aurrerakoa da gizakion garunari horrenbesteko garrantzia ematea.

ZER ONDORIOZTA DEZAKEGU, BAINA, HORTIK?

Bada, hizkuntza-plangintza egitean, hainbat alderdi kontuan izan behar ditugula; besteak beste: errealitatea adierazteko gaitasuna eta hizkuntzak ikasteko gaitasuna.

Hizkuntzak hiztunen ikuspuntutik aintzatestea, beraz, elkarri loturiko hiru zirkuluak aintzatestea da; hots, hizkuntzak ikuspuntu aktibotik existitzea ahalbidetzen duten zirkuluak aintzatestea. Horregatik jartzen dut “languages” “in”- “ing”. Ideia hori Maturana eta Varela biologo kulturalena da –zinez dira apartak–. Haien arabera, hizkuntzak ez dira hizkuntzak, baizik eta “languaging”: ez dira objektuak, baizik eta ekintza; funtsean, multzo dinamikoak dira. Hori ulertzeko, aldi bereko hiru alderdi hauen ikuspegiak izan behar ditugu kontuan: psikosfera, soziosfera eta noosfera; hau da, eskema ideologikoen eta kontzeptualen eremua; esate baterako: mundua adierazteko kodea. Esan beharra dago hizkuntzalariak urte askoan aritu direla horri buruz eztabaidan. Zein da hizkuntzaren lekua, *locusa*? Nagusiki Saussurek garatutako dimentsio soziala? Chomskyren psikologia orokorra? Hizkuntzalari klasikoek *noosfera*? Nork du arrazoi? Denek dute arrazoia. “Edo” pentsatu beharrean “eta” pentsatzen badugu, denek dute arrazoia. Egun, hizkuntza fenomeno psikologiko, soziologiko, sozial eta kontzeptual bat da. Jada ez dago kontraesanik. Hizkuntzek aldi bereko hiru dimentsio horiek dituzte. Horrek, noski, aldaketa epistemologiko handia dakar.

Horiek horrela, hizkuntza-ekologiaren teorizazioak bat etorri behar du ikuspegi horrekin. Helburuak ezartzean, kontuan hartu behar ditugu pertsonen ikuspegiak eta arrazoibide nagusiak. Baina, nola konbentzitu ditugu gizabanakoak? Zer mekanismoren bidez aldatuko ditugu jarrerak, errealitatearen adierazpenak eta ikuspegiak? Hori guztia gizabanakoen garunean dago. Ez gara gizaki itxiak.

Horrez gainera, kontuan hartu behar dugu elkarrekintza soziala ere; izan ere, gizakiok ez gara guztiz independenteak, aitzitik, batasun bat osatzen dugu: gure barnean dagoen munduaren parte gara. Zuek nire barnean zaudete, eta ni zuen parte naiz. Ikuspuntu mentalaren arabera, ni zuen pantailan nago, eta zuek nire pantailan. Kanpoko nire barnean dago. Elkarri lotuta gaude. Aldi berean eta elkarren artean existitzen gara. Hori ulertzea garrantzitsua da; izan ere, elkarrekiko erlazioak dira soziolinguistikaren abiapuntua.

Funtsezkoa da elkarrekiko erlazioak ulertzea hizkuntza-normalizazioak arrakasta izan dezan, batez ere, mikropolitikaren arloan. Legedi bat egon behar da, bai eta ekintza politikoa ere. Dena den, garrantzitsua da

**Gizarteak
ulertzeko, eta,
beraz, ikuspegi
soziolinguistikoa
ulertzeko,
ezinbestekoa da
ikuspegi mentala,
kognitiboa eta
kognitibo-
emotiboa
kontuan hartzea.**

gizabanakoen eta taldeen artean, sare sozialetan eta elkartasunaren arloan elkarrekiko erlazioa nola gertatzen den aztertzea, eta erlazio horretan esku hartzea; izan ere, gizabanakoak ez dira banan-banan erlazionatzen bestekin, baizik eta sare moduan. Hein batean, testuinguruak mugatzen du gizabanakoa: hark sortzen duen testuinguruak mugatzen du; hau da, elkarrekiko erlazioa dute.<0}

Nortasunaren dimentsioa. Gai horri dagokionez, nola sailkatzen dute gizabanakoek beren burua? Nola lotzen dituzte hizkuntza eta nortasuna? Nola dago itxuratuta nortasunaren dimentsioa? Nolakoa da nortasuna? Harriak bezalakoa al da? Elementu fisikotzat hartzen al dugu? Ez. Nortasuna ez da gauza fisiko bat. Horregatik, hainbat nortasun izan ditzakegu, agian hainbat antolaketa-mailatan, baina, edonola ere, argi dago hainbat nortasun izan ditzakegula.

Esate baterako, gure gizartean, askok esaten dute “ni X naiz”, “ni Z naiz”, “ni X naiz, baina baita Z pixka bat ere”... eta alderantziz... Nortasuna ez da objektu bat, baizik eta elementu kognitibo eta emozionalen multzoa. Pertsonen taldeak osatzen dituzte, munduarekin duten erlazioaren arabera. Kontua da nortasuna ez dela harri bat.

Gizarte-ekosistemaren ikuspegi horren arabera, pertsonok hainbat talderen partaide gara eta gizarte-sistema zabal batean sartuta gaude. Sistema horrek gizabanakoari mugak jartzen dizkion plan ekonomiko bat du (ekonomiaren ikuspegia oso garrantzitsua da hizkuntzek irauteko; ezinbestekoa da hizkuntza eta ekonomia lotzea; hots, hizkuntza eta lana lotzea), bai eta teknologiaren eta komunikabideen alderdiak ere; bertan daude enklabe garaikide guztiak. Horrek guztiak eragina du pentsatzeko moduan. Konponbideak aurkitu behar ditugu. Esate baterako, nola jardungo dugu ezin badugu eraginik izan teknologia arloko multinazionala? Zer elementu sor ditzakegu tokian bertan multinazionalen jarduna orekatzeko?

Eta, noski, ezin ahaztu politikaren arloa. Hizkuntza-ekologia izateko, politika ezinbestekoa da. Politikaren bidez, biziera kolektiboa antolatzen dugu. Horren ondorioz, hizkuntza-taldeak ez badu behar adina kontrolatzen bere taldearen bilakaera, arazo bat jazoko da: mendekotasuna; batez ere, menderatutako taldea kontrolatzen duena ez bada talde horren aldekoa. Horren ondorioz, kontrolean dagoenaren mende biziko da taldea. Politikaren arloan jardutea funtsezkoa da; izan ere, piramidearen erpinean dago ekologia politikoa (botere politikoa); adimena, elkarrekintza, taldeak eta ekonomia baino gorago, hain zuzen. Izan ere, botere nagusia da. Nahiz eta dena ez antolatu, gainerako dimentsioak dezente antolatzen ditu.

Mundu global batean bizi gara; mundu global eta lokal batean. Globalizazioa ez da gugandik urruti gertatzen; aitzitik, globalizazioa tokian tokiko bizimoduarekin lotuta dago, ongi lotuta egon ere. Eta, bide batez, tokian tokiko bizimoduak eragina du bizimodu globalean.

Amaitzeko, hizkuntza-ekologia teorizatzen eta praktikara eramaten dugunean, sormenerako eta irudimenerako espazio bat bilatu behar dugu. Ezer ez da behin betikoa, ez eta betiko itxia ere. Bide ireki bat da; komunitateek eta komunitateetan jarduten duten taldeek sortu eta asmatu beharreko bide bat. Haiei dagokie beren ekosistemarentzat irtenbide egokiak aurkitzea; izan ere, nire ustez, itxaropena izan behar dugu; batez ere, ikuspuntu global eta lokal horren arabera pentsatzen badugu. Ez gara munduaren parte txiki bat soilik; aitzitik, txikiak izan arren, unibertsaltasunaren duintasuna dugu. ●

OHARRA

1. Artikulu hau Albert Bastardas irakasleak *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* UE-MAK Soziolinguistika Klusterrarekin antolatutako Topaketan emaniko hitzaldian oinarritutakoa da. Topaketa 2011ko apirilaren 14an egin zen Azpeitian (Gipuzkoa)

***Ez gara
munduaren parte
txiki bat soilik;
aitzitik, txikiak
izan arren,
unibertsaltasu-
naren
duintasuna dugu.***